

## HERNANIKO UDALA

## AYUNTAMIENTO DE HERNANI

### 2015-erako DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

### PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES 2015

#### ATARIKOA

#### PREÁMBULO

Oinarrizko izaera duen diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio: «administrazioko organoek edo diru laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko baten zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea».

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko hamahirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du legezko arau edo erregelamenduetan aurreikusitako politika publikoei buruzko plan edo programak Diru Laguntzen Plan Estrategikotzat joko direla edo 38/2003 Legeko 8.1 artikuluan aurreikusitako edukia jasoko dutela.

Diru Laguntzen Lege Orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea zuzentzen duen printzipioetako bat gardentasuna da, eta horrek modu zuzenean du eragina diru laguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia mailaren igoeran.

Zentzu horretan, diru laguntzei buruzko informazio gehiago izateak merkatuan eragina izan ditzaketen distorsio eta interferentziak kentzea ahalbideratuko du, eta administrazio publikoen jardunen osagarritasuna eta koherentzia erraztuko du, edozein motako gainjartzea ekidinez.

Eraginkortasuna hobetzeko Diru laguntzei buruzko Plan Estrategikoa egitea aurreikusten du araudiak. Plan hori urterokoa izan beharko da eta diru laguntzak sortu aurretik egin beharko da.

El artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, que tiene carácter básico, establece que «Los órganos de la Administración o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria».

La disposición adicional decimotercera de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, establece que los Planes y Programas relativos a políticas públicas que estén previstas en Normas legales o reglamentarias tendrán la consideración de Planes estratégicos de Subvenciones o recogerán el contenido previsto en el art. 8.1.de la Ley 38/2003.

La Ley General de subvenciones supone un paso más en el proceso de perfeccionamiento y racionalización del sistema económico. Uno de los principios que rige la Ley es el de la transparencia que redundará de forma directa en un incremento de los niveles de eficacia y eficiencia en la gestión del gasto público subvencional.

En este sentido, una mayor información acerca de las subvenciones hará posible eliminar las distorsiones e interferencias que pudieran afectar al mercado, además de facilitar la complementariedad y coherencia de las actuaciones de las distintas Administraciones Públicas evitando cualquier tipo de solapamiento.

Para mejorar la eficacia, se prevé en la legislación que se proceda a elaborar un Plan Estratégico de Subvenciones, de carácter anual y con carácter

Plan hau hainbat urtetarako izateko bokazioz egin da, beti ere urtero beharrezko izan daitezkeen aldaketak egin beharko bazaizkio ere.

Horregatik, Udal honek Diru Laguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Planak ondorengo artikulua ditu:

## I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua.

Hernaniko Udalak 2015 aldiari emango dituen diru laguntzak, Hernaniko Udalean indarrean dagoen dirulaguntzak emateko Araudiaren, Diru Laguntzen Lege Orokorraren, Plan honen, dagozkion hitzarmenen eta diru laguntzak emateko urtero egingo diren deialdien oinarrien arabera emango ditu.

#### 2. artikulua.

Plan honetan aurreikusitako diru laguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kontsignazioak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta diru laguntzak arautzeko oinarriak onartu.

#### 3. artikulua.

Diru laguntzak egoteko baldintza izango da aurrekontu egonkortasun helburuak betetzea, eta beraz, onartuko diren aurrekontu kontsignazioak eta diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak uneoro helburu horietara egokitu beharko dira.

#### 4. artikulua.

Diru laguntza Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeenentzako, eta ezingo dute inolako kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu Plana ez bada bere horretan betetzen.

previo al nacimiento de las subvenciones.

Este Plan tiene vocación de plurianual, con las revisiones que sean necesario hacerse anualmente.

Por ello, este Ayuntamiento aprueba el Plan Estratégico de Subvenciones cuyo articulado figura a continuación.

## CAPÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

#### Artículo 1.

La concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Hernani durante el ejercicio 2015 se ajustará a la normativa sobre concesión de subvenciones vigente en el Ayuntamiento de Hernani, a la Ley General de Subvenciones, al presente Plan, a los correspondientes convenios y a las Bases de las convocatorias anuales de las subvenciones.

#### Artículo 2.

El establecimiento efectivo de las subvenciones previstas en este Plan requerirá la inclusión de las consignaciones correspondientes en los Presupuestos municipales de cada año y la aprobación de las bases reguladoras de su concesión.

#### Artículo 3.

El establecimiento de subvenciones queda supeditada al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, por lo que las consignaciones presupuestarias que se aprueben y las bases reguladoras de su concesión se acomodarán en cada momento a dichos objetivos.

#### Artículo 4.

La aprobación del presente Plan Estratégico de Subvenciones no supone la generación de derecho alguno en favor de los potenciales beneficiarios, que no podrán exigir indemnización o compensación alguna en caso de que el Plan no se lleve a la



práctica en sus propios términos.

## CAPÍTULO II

### BENEFICIARIOS

#### Artículo 5.

El Ayuntamiento concederá subvenciones, mediante convocatoria pública o a través de la firma de convenios de colaboración, a favor de personas, asociaciones o Entidades privadas con la finalidad de fomentar la realización de actividades de utilidad pública o interés social o para promover la consecución de fines públicos atribuidos a la competencia local.

#### Artículo 6.

Son principios generales de este Plan los siguientes:

Publicidad y libre concurrencia mediante convocatoria previa en la que se garantice la objetividad, transparencia, publicidad, concurrencia e igualdad en la distribución de fondos públicos, ello sin perjuicio de la posible concesión directa que, de conformidad con lo establecido en la norma aplicable, deberá contar con la debida consignación presupuestaria previa.

— Concesión conforme a criterios objetivos previamente establecidos en la convocatoria a fin de garantizar el conocimiento previo de los mismos por los potenciales beneficiarios.

— Eficacia en el cumplimiento de los objetivos marcados y eficiencia en la asignación de recursos públicos, debiéndose justificar cuantitativa y cualitativamente.

— Control y análisis de la adecuación de los fines de las entidades solicitantes a los principios de igualdad y no discriminación en el ejercicio de las actividades subvencionadas.

— Y de forma específica, verificar de forma constante la pertinencia del Plan Estratégico. A

## II KAPITULUA

### ONURADUNAK

#### 5. artikulua.

Udalak, deialdi publiko bidez edo lankidetza-hitzarmenak eginaz, diru laguntzak emango dizkie pertsoei, elkarteei edo erakunde pribatuei herri onurako edo gizartearen intereseko jarduerak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzeko.

#### 6. artikulua.

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

Publizitatea eta lehiakortasun askea aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, objektibitatea, gardentasuna, publizitatea, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, hori guztiori, emakida zuzenaren kaltetan gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakiokkeen arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.

— Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboaren arabera egingo da emakida, onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.

— Eraginkortasuna jarritako helburuak betetzeko eta efizientzia baliabide publikoak esleitzeko, kantitate eta kalitate aldetik justifikatu beharko delarik.

— Diru laguntza eskatzen duten erakundearen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea.

— Eta, berariaz, Plan Estrategikoaren egokitasuna uneoro egiaztatzea. Hau da:

— Plana termino sozialetan justifikatzea.

— Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak.

- Finantza gaitasuna.
- Arlo horretako udal eskumena azaltzea.

## 7. artikulua.

Diru laguntzak emateko eskuduntza, eta beraz, Diru Laguntzen Plan Estrategikoa exekutatzekoa, indarrean dagoen eskuduntza udal araubidearen araberrakoa izango da.

Beraz,

- Diru laguntza programak aurrekontu zuzkidura egokia eta behar bestekoa egotearen menpe daude.

— Diru laguntzak edo emakida zuzenak (hitzar-menak) eman aurretik gastua onartu beharko da Hernaniko Udaleko aurrekontu arauetan aurreikusitako moduan.

— Eta, azkenik, diru laguntzak eman aurretik, emakida arautzen dituzten arauak edo oinarriak onartu beharko dira.

saber:

- Justificación del Plan en términos sociales.
- Necesidades de la ciudadanía a las que atiende.
- Capacidad financiera.
- Explicación de la competencia municipal en la materia.

## Artículo 7.

El órgano que tiene atribuida la competencia de concesión de ayudas o subvenciones y, por tanto, la ejecución del Plan Estratégico de Subvenciones, se determinará según el régimen de delegaciones en vigor.

Por tanto,

- Los programas de subvenciones quedarán condicionadas a la existencia de dotación presupuestaria adecuada y suficiente.
- Con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones o concesiones directas (Convenios), deberá efectuarse la aprobación del gasto en términos previstos en las normas presupuestarias del Ayuntamiento de Hernani.
- Y finalmente, y de forma previa al otorgamiento de las subvenciones, deberán aprobarse las normas o bases reguladoras de la concesión.

## CAPÍTULO III

### CONTENIDO DEL PLAN

#### III KAPITULUA

#### PLANAREN EDUKIA

## 8. artikulua.

## Artículo 8.

La concesión de las subvenciones y ayudas previstas en este Plan para el ejercicio 2014 contiene, en cada uno de sus Anexos:

Plan honetan aurreikusitako laguntzek eta diru laguntzek honako hauek jasotzen dituzte bakoitzari dagokion eranskinean:

— Emakida mota aplikagarria.

— Hartzaileak.

— Diru kopurua.

## 9. artikulua.

Plan honek hiru Eranskin ditu, aurrekontuan aurreikusitako diru laguntza jarduerarekin bat etorritz.

\* I. Eranskinean diru laguntzak ematen dituzten Udal sail ezberdinen diru laguntza jarduera jaso da.

\* II. Eranskinean Osasun eta Gizarte Ongintzarako Patronatuaren dirulaguntza jarduera jaso da, Erakunde Autonomoa den heinean.

\* III. Eranskinean Ereñotzuko Toki entitate txikiaren dirulaguntza jarduera jaso da, Udalaren menpeko erakunde autonomoa den heinean.

## 10. artikulua.

Aurrekontuan aurreikusitako diru laguntzak ondorengo irizpideen arabera zerrendatuta agertzen dira eranskin bakoitzean:

— Diru laguntza ematen duen saila. Irizpide horrekin departamentua zehazten da (eranskinaren arabera).

— Helburua. Irizpide horrekin diru laguntza zein helburutarako erabiliko den zehazten da, gero helburu hori ebaluatu ahal izateko.

— Kudeaketa mota. Irizpide horrekin diru laguntza emateko aplikatu beharreko prozedura aurreikusten da (lehiakortasun askea, lankidetzaren hitzarmena, programa).

— Zenbatekoa. Diru laguntza bakoitzerako

— La modalidad de concesión aplicable.

— Los destinatarios a los que van dirigidas.

— El importe económico.

## Artículo 9.

Este Plan se estructura en dos Anexos, de conformidad con la actividad subvencional prevista presupuestariamente para el ejercicio.

\* En el Anexo I se lista y desglosa la actividad subvencional del Ayuntamiento de Hernani ordenada por Departamentos concedentes.

\* En el Anexo II se desglosa la actividad subvencional del Patronato de Salud y Bienestar Social, en cuanto que es Organismo Autónomo.

\* En el Anexo III se desglosa la actividad subvencional de Ereñotzuko Toki Entitate Txikia, en cuanto que es organismo autónomo dependiente.

## Artículo 10.

Cada uno de los Anexos ordena las subvenciones previstas presupuestariamente bajo los siguientes criterios:

— Ente concedente. Bajo este criterio se especifica el Departamento u Organismo gestor de la subvención(según el Anexo de que se trate).

— Objeto. Bajo este criterio se especifica la finalidad para la que se destina la subvención, la cual será posteriormente objeto de evaluación.

— Modalidad de gestión. Criterio que distingue la previsión en cuanto al procedimiento a aplicar para su concesión (libre concurrencia, convenio de colaboración, programa).

— Importe. Referido a la consignación prevista para

aurreikusitako kontsignazioa.

cada subvención.

## IV KAPITULUA

### DIRU LAGUNTZEN ONURADUNAK ETA GAIAK

#### 11. artikulua.

Udalak, deialdi publiko bidez edo lankidetzaz hitzarmenak eginaz, diru laguntzak emango dizkie pertsonari, elkartei edo erakunde pribatuei herri onurako edo gizartearen intereseko jarduerak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzeko.

#### 12. artikulua.

Hernaniko Udalak diru laguntzak emango ditu urtero, hainbat udal Diru laguntza Lerrotan, ondorengo eskumen arloetan: Auzoak, Euskara, Gizarte Gaiak, Gobernu Organoak, Hezkuntza, Kirola, Kultura, Sozioekonomia, Osasun eta Gizarte Ongintza eta Ereñotzu. Hauek dira helburu orokorrak arloz arlo, nahiz eta diru-laguntza deialdi edo hitzarmen bakoitzak jasoko duen xedearen inguruko azalpen sakonagoa:

12.1.- Auzoak: Auzo bizitza sustatzeko Auzo Elkarten ekimen programak bultzatu eta auzoetako azpiegitura kolektiboak sortu eta garatzea.

12.2.- Euskara: Euskara normalkuntza lanetan ari diren elkarten jardura laguntzea.

12.3.- Gazteria: Gazteen artean etxebizitzarako eskubidea gauzatzeko laguntzak ematea.

12.4.- Gizarte Gaiak: Hirugarren mundua, lankidetzaz eta inmigrazio gaitan ari diren elkarten jardura laguntzea.

12.5.- Gobernu Organoak: Irabazi asmorik gabeko elkarten jardura laguntzea, interes orokorreko jarduerak diren neurrian (elkartei dirulaguntza zuzenak); Udal Talde politikoen jardura mantentzea

## CAPÍTULO IV

### BENEFICIARIOS Y MATERIAS DE LAS SUBVENCIONES

#### Artículo 11.

El Ayuntamiento concederá subvenciones a favor de personas, asociaciones o Entidades privadas con la finalidad de fomentar la realización de actividades de utilidad pública o interés social o para promover la consecución de fines públicos atribuidos a la competencia local.

#### Artículo 12.

El Ayuntamiento de Hernani establecerá anualmente subvenciones en las siguientes áreas competenciales: Auzoak, Euskara, Gizarte Gaiak, Gobernu Organoak, Hezkuntza, Kirola, Kultura, Sozioekonomia, Osasun eta Gizarte Ongintza y Ereñotzu. Los objetivos generales por áreas son los que se determinan a continuación. No obstante, la convocatoria individualizada de cada ayuda deberá reflejar con mayor detalle la explicación sobre los objetivos del programa de ayudas en particular:

12.1.- Auzoak: Revitalización de los barrios y ayudas a las actuaciones de creación y renovación de equipamientos comunitarios.

12.2.- Euskara: Ayudas a las asociaciones que trabajan en el ámbito de la normalización del euskara.

12.3.- Gazteria: Ayudas al alquiler y acceso a la vivienda para jóvenes.

12.4.- Gizarte Gaiak: Ayudas al desarrollo, cooperación y políticas de inmigración.

12.5.- Gobernu Organoak: Apoyar la actividad de asociaciones sin ánimo de lucro y apoyo de actividades que reviertan en el interés general del municipio, no encuadrables en otros programas de subvención. Ayudas directas (Artículo 11 de la norma municipal de concesión de subvenciones).

12.6.- Hezkuntza: Impulso de actividades extraescolares y/o complementarias a la materia escolar, lideradas por la comunidad educativa

(Aurrekontuaren Udal Araudia, 11. artikulua).

12.6.- Hezkuntza: hezkuntza komunitateak (ikastetxeak, guraso elkarte...) hezkuntza gaiekin osagarriak diren ikastetxez kanpoko jarduerak bultzatzea.

12.7.- Kirola: Kirol praktika sustatu herrian; kirol arloko jarduerak burutzen dituzten erakunde eta herriko klubei laguntza ematea.

12.8.- Kultura: herriko kulturgintza ari diren urtea zehar garatuko dituzten kultur jarduerak diruz laguntzea; herritarrei kultur jarduera egokia eskaintzeko udala eta kultur elkarten lankidetzatzea (Musika Banda eta Txistulari Banda).

12.9.- Sozioekonomia: Merkataritza indartzeko eta sustatzeko Berriak elkarteak antolatzen dituen ekintzetarako dirulaguntza; Artxibo historikoaren mantenuerako Eusko Ikaskuntza erakundearekin hitzarmena.

12.10.- Osasun eta Gizarte Ongintza: Osasun eta Gizarte Ongintza Patronatuak bere esparruan lantzen dituen jarduerak laguntzea (adinekoak eta oinarrizko zerbitzu sozialen alorra).

12.11.- Ereñotzu: Ereñotzu auzo bizitza indartzeko elkarteek garatzen dituzten jarduerak lagundu eta sustatzea.

## V KAPITULUA

### DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNAREN AZTERKETA. EMAITZEN AZTERKETA

#### 13. artikulua.

Diru laguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, diru laguntzak ematen dituzten departamenduek txosten arrazoitua eskatuko diete diru laguntzak jasotzen dituztenei. Txostenean egindako ekintza kopurua eta diru laguntzak zenbat herritarrengan izan duen eragina jaso beharko dira batetik, eta, bestetik, lortutako helburuak justifikatu beharko dira.

#### 14. artikulua.

Zehazki, ebaluatu ahal izateko honako hauek zehaztu beharko dira:

— Helburua.

(centros docentes, asociacion de madres/padres...) .

12.7.- Kirola: Fomento de la práctica deportiva en el municipio. Apoyo a las actividades de los clubes deportivos.

12.8.- Kultura: Cooperación con las asociaciones culturales para el desarrollo de un programa de actividades culturales en el municipio.

12.9.- Sozioekonomia: Fomento de políticas de impulso al pequeño comercio en colaboración con las asociaciones locales (Berriak).

12.10.- Osasun eta Gizarte Ongintza: Apoyo económico a las asociaciones que trabajan en el ámbito de la tercera edad y servicios sociales básicos.

12.11.- Ereñotzu: Fomento de actividades culturales y festivas en el barrio de Ereñotzu como medida para impulsar la identidad del barrio.

## CAPÍTULO V

### EVALUACIÓN DE LA EFICACIA DE LOS PROGRAMAS SUBVENCIONADOS. ANÁLISIS DE RESULTADOS Artículo 13.

Para un mejor análisis de la eficacia de cada subvención, los departamentos y organismo concedentes solicitarán de los beneficiarios informe motivado sobre el número de acciones desarrolladas, número de ciudadanos a los que alcanza la subvención y justificación de los objetivos alcanzados.

#### Artículo 14.

En concreto se deberá detallar para la evaluación lo siguiente:

— Objeto.

— Entidad beneficiaria y, en su caso, colaboradora.

— Importe subvencionado.

— Acciones concretas desarrolladas en el importe de la subvención.

- Diru laguntza jasotzen duen erakundea, eta hala bada, laguntzailea.
- Diru laguntzaren zenbatekoa.
- Diru laguntzarekin egindako ekintza zehatzak.
- Diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina.
- Diru laguntza ematen duen departamenduaren balorazioa laguntza eman zenean lortu nahi ziren helburuekiko egokitasunari buruz eta dagokion programarekin jarraitzearen edo kentzearen bidez kotasunari buruz.

## VI KAPITULUA

### DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN KONTROLA

#### 15. artikulua.

Planaren indarraldia amaituta, eta berria egin aurretik, Alkateak txostena aurkeztu beharko du Ogasun Batzordean. Bertan, gutxienez, honakoak jaso beharko dira: Planaren betetze maila, lortu nahi ziren helburu eta eraginetan diru laguntzek izan duten eraginkortasuna eta efizientzia eta ondorioak; eta horrekin batera, hurrengo Diru Laguntza Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

Hernani, 2014ko abenduaren 11an  
Alkateak, Luis Intxauspe Arozamena

- Número de ciudadanos a los que ha alcanzado la acción subvencionada.
- Valoración del departamento concedente en cuanto a adecuación a los objetivos perseguidos al tiempo de su otorgamiento y la procedencia del mantenimiento o supresión del programa del que trae causa.

## CAPÍTULO VI

### CONTROL DE LOS PROGRAMAS SUBVENCIONADOS

#### Artículo 15.

Finalizada la vigencia del Plan, y antes de la elaboración del siguiente, el Alcalde deberá presentar ante la Comisión de Hacienda, una Memoria en la que se contemple, al menos, el grado de cumplimiento del Plan, la eficacia y eficiencia del otorgamiento de subvenciones en la consecución de los objetivos y efectos pretendidos y conclusiones, con propuesta de sugerencias para la elaboración del siguiente Plan Estratégico de Subvenciones.

Hernani, 11 diciembre de 2014

El Alcalde, Luis Intxauspe Arozamena





<b>ERANSKINA I - Anexo</b>	<b>HERNANIKO UDALA</b>	<b>1.110.172</b>
--------------------------------	------------------------	------------------

<b>Emakida Concesión</b>	<b>Partida</b>	<b>Programa</b>	<b>Onuraduna Beneficiario</b>	<b>Kopurua Importe</b>
Norgehiagoka/Concu- rrencia	02.481.05.912.00	Auzoak	AUZOLAN PROGRAMAK	50.000
Norgehiagoka/Concu- rrencia	05.481.01.153.80	Auzoak	DIRULAG:AUZO ELKARTEAK	105.696
Norgehiagoka/Concu- rrencia	02.481.01.335.00	Euskara	DIRULAG:EUSKARA SUSTA- PENA	50.000
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Dobera Euskara Elkartea	30.035
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Dobera Euskara Elkartea (Kronika)	65.000
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Euskaraz Kooperatiba (AEK)	35.000
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Euskaraz Kooperatiba (AEK)- Korrika Kulturala	3.000
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Hizkuntza Eskubideen Beha- tokia	1.663
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Gizarte Erakundeen Kontsei- lua	1.889
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Nafarroa Oinez	1.500
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Herri Urrats	1.500
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Kilometroak	500
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Ibialdia	500
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Araban euskaraz	500
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Komunikazio Biziagoa, S.A.L. (Argia aldizkaria)	777
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Berria	1.000
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- UEU	443
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Paulo Ttikia Bertso Eskola	7.000
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Abenduko bertso lata	3.848
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Enpresetako euskara plana	3.000
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Bertsolarien lagunak elkartea	1.000
Zuzena/Directa	02.481.02.335.00	Euskara	- Sortzen Ikasbatuaz elkartea	500
Norgehiagoka/Concu- rrencia	02.481.02.231.03	Gaztedia	ALOKAIRU DIRULAGUNTZAK- GAZTEDIA	64.000
Zuzena/Directa	02.481.01.230.02	Gizarte Gaiak	DIRULAG:SAHARAKO KAN- PAM.	2.000
Zuzena/Directa	02.481.02.230.02	Gizarte Gaiak	Euskal Fondoaren egitasmoak:	43.700
Norgehiagoka/Concu- rrencia	02.481.02.230.02	Gizarte Gaiak	Gobernuz kanpoko erakundeen egitasmoak:	133.000
Norgehiagoka/Concu- rrencia	02.481.02.230.02	Gizarte Gaiak	Sentiberatze egitasmoak:	13.300
Zuzena/Directa	02.481.03.231.02	Gizarte Gaiak	DIRULAG:AMHER	35.600
Zuzena/Directa	02.481.01.912.00	Gobernu Or- ganoak	Harrera Elkartea	3.000
Zuzena/Directa	02.481.01.912.00	Gobernu Or- ganoak	Dya	1.000
Zuzena/Directa	02.481.01.912.00	Gobernu Or- ganoak	Gure Esku Dago elkartea	9.500
Zuzena/Directa	02.481.01.912.00	Gobernu Or- ganoak	Hernaniko Gazte Asanblada	7.000



Zuzena/Directa	02.481.01.912.00	Gobernu Or-ganoak	Besterik (Ogasun Batzordea)	9.500
Zuzena/Directa	02.481.03.912.00	Gobernu Or-ganoak	Etzegabetze egoerak	30.000
Zuzena/Directa	02.481.02.912.00	Gobernu Or-ganoak	TALDE POLITIKOAK. ASIGNA-ZIOAK.	52.576
Zuzena/Directa	02.481.01.323.00	Hezkuntza	DIRULAG:IKASTETXEAK KAN-POKO EKINTZ	18.000
Zuzena/Directa	02.481.01.323.30	Hezkuntza	DIRULAG:HAUR-ESKOLA KANPOKO EK.	400
Zuzena/Directa	02.481.02.341.00	Hezkuntza	DIRULAG:ESKOLA-KIROLA	17.000
Norgehiagoka/Concu- rrencia	02.481.01.341.00	Kirola	DIRULAG:KIROL EKINTZAK	29.573
Zuzena/Directa	02.481.03.341.00	Kirola	DIRULAG:KLUBAK Club Deportivo Hernani(futbola+atletismoa) Hernani Rugby taldea Hatzi klimbers Hernani Arraun Elkarte	60.812
Norgehiagoka/Concu- rrencia	02.481.04.341.00	Kirola	DIRULAG:KIROL EKIN.EZOHI-ZKOAK	4.088
Norgehiagoka/Concu- rrencia	02.481.01.334.00	Kultura	DIRULAG:KULTURA SUSTA-PENA	73.000
Zuzena/Directa	02.481.01.334.20	Kultura	DIRULAGUNTZA:MUSIKA BANDA	83.459
Zuzena/Directa	02.481.01.334.30	Kultura	DIRULAGUNTZA:TXISTULARI BANDA	38.813
Zuzena/Directa	02.481.01.241.00	Sozioekono- mia	BERRIAK ELKARTEA-HITZAR-MENA	14.000
Zuzena/Directa	02.481.01.920.30	Sozioekono- mia	EUSKO IKASKUNTZA HITZAR-MENA	2.500

<b>ERANSKINA II- Anexo</b>	<b>OSASUN ETA GIZARTE ONGINTZARAKO PATRONATUA</b>	<b>332.872</b>
--------------------------------	---	----------------

Emakida Concesión	Partida	Programa	Onuraduna Beneficiario	Kopurua Importe
Zuzena/Directa	1 0101 481 01 231 02	Ongintza-Ju-bilatuen Etxea	Goiz Eguzki elkarte	13.590
Norgehiagoka/Concu- rrencia	1 0101 481 01 231 01	Ongin- tza-Elkartek	Elkartek, helburu sozialekin.	28.245
Zuzena/Directa	1 0101 481 02 231 01	Ongin- tza-Baka- rkako diru-lag	Pertsonak eta familiak	142.500
Zuzena/Directa	1 0101 480 03 231 01	Ongintza-Gi- zarte Larrial- dietarako Lag	Pertsonak eta familiak	148.537

<b>ERANSKINA III- Anexo</b>	<b>EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA</b>	<b>20.500</b>
---------------------------------	--	---------------

Emakida Concesión	Partida	Programa	Onuraduna Beneficiario	Kopurua Importe
----------------------	---------	----------	---------------------------	--------------------

Zuzena/Directa	01.481.01.334.00	Ereñotzu	Dobera euskara elkarte-Uru- meako Kronika	3.000
Zuzena/Directa	01.481.01.334.00	Ereñotzu	Ur-Mia elkarte	500
Zuzena/Directa	01.481.01.334.00	Ereñotzu	Olak Auzo Elkarte	16.000
Zuzena/Directa	01.481.01.334.00	Ereñotzu	AEK-Korrika	500
Zuzena/Directa	01.481.01.334.00	Ereñotzu	Wukro Senidetza elkarte	500